

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Zaborren tasaren errolda, 2019ko bigarren hiruhilekoko

2019ko bigarren hiruhilekoko zaborren tasaren errolda jendaurrean dago, hamabost egun baliodunez, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko.

Alegaziorik aurkezten ez bada zaborren tasaren erroldaren aurka jendaurreko 15 egun baliodunetan, ordaintzeko epea hasiko da.

Zaborra biltzeko zerbitzuaren 2019ko bigarren hiruhilekoko ordainagiriak aldi honetan ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean: 2019ko uztailearen 1etik abuztuaren 31ra (egun biak barne).

Zerga horren eraginpeko zergadunek udalaren diruzaintzan egin ahal izango dute ordainketa, adierazitako epean, 10:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal dutela.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Zergabilketa Arautegi Orokorrak, eta ehuneko bosteko errekararekin kobratuko dira ordaindu gabeko kuotak; errekaru hori bateragarria da luzapen errekararekin.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Agurain, 2019ko ekainaren 26a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES